

Zurekin

IBARRA

ehbildu

gara



IGOR ZAPIRAIN
LIZARRIBAR



**Juan Karlos
Izagirre**

Foru hauteskundeetarako
zerrendaburua

«Aukera eta
ahalmen handiko
herrialdea da
Gipuzkoa. Baina,
oraindik ere, asko
dago hobetzeko»

A portrait of Igor Zapirain Lizarribar, a middle-aged man with short dark hair, wearing a dark zip-up sweater over a collared shirt. He is standing with his arms crossed against a light grey background.

Igor Zapirain Lizarribar

Tolosa, 1975

Elektronika eta mekanika teknikaria. Urte eta erdi AEBetan lanean aritutakoa. CAF enpresan 22 urte daramatza produkzio ingeniartzan. Ibarran bizi da 2000. urtetik.

«Gure herriaren
etorkizuna eraikitzen
jarraitu nahi dugu»

ZER DELA ETA ALKATEGAI?

Oso gaztetatik egin izan dut bizitza Ibarra eta urte batzuetan herriko hainbat entitatetan aritu naiz: Ikastolako Guraso Elkarte, bai haur eskolan, bai Ikastolan bertan; Sendi Ekintza elkarte ere bai, bi urtez lehendakari lanetan, eta, horren bitartez, Hauspoan.

Udal politikagintzan sartzea ez zegoen nire planen barruan, baina iruditzen zait ibilbide hau borobiltzeko aukera eman didatela orain. Horixe izan da arrazoia erronka arduratsu eta polit honi heldu eta, herriko eragile guztiekin elkarlanean, Ibarra hobetzen ahalegintzeko.

ZER NABARMENDUKO ZENUKE IBARRATIK?

Ibarra aspalditik du jendearen inplikazio handia, besteak beste, talde eta elkarte lanaren bidez gauzatzen dena, inongo etekin ekonomikorik gabe, musu-truk, herriaren eta herritarren mesedetan.

Hor sartzen dira kultur eragileak, kirol taldeak, aisialdi taldeak, auzoetako dinamika daramatenak, emakume taldeak, gazte-mugimenduak eta adinekoen ekimenak... Badira, jakina, beste esparru batzuk ere, ezinbesteko zutabe direnak: hezkuntza, oso txertatua herrian; nekazaritza —baratzainak, adibidez—; industria mundua (Apatia)...

ZERI HELDU NAHI DIOZUE, BATIK BAT?

Lehenik eta behin, aurrerantzean ere Udaletxeko ateak zabalik izango dituzte herritar guztiek, inor baztertu gabe, agintekeriari gabe. Udaletxea izan dadila guztion etxea. Bestalde, egoera asko aldatu da azken bi agintaldi hauetan, eta, batzuk aipatzearren, barneko lan batzuk goraipatuko nituzke: Hirigintzako Plana onartu izana; ibilbide osasuntsuak (Ibarra Martxan); gazteekin egiten ari diren lana (Gaztezulo, kale hezitzaileak); eta indarkeria sexisten aurkako koordinazio protokoloa.

* Hirigintza Plan berriak izugarritzko aukerak emango dizkigu, izan ere, aurrerantzean eskumena izango dugu etxebizitzak, aparkalekuak, bide egokitzeak... egiteko.

* Gazteekin eta 3. adinarekin sentsibilizaturik gaude eta diagnosi zehatz bat egin ostean, gazteak Ibarra geratzeko apustua egin nahi dugu, beste gauza batzuen artean, laguntzak bultzatuaz eta etxebizitzak eginez.

* Ezin dugu ahaztu ingurumenarekiko dugun konpromisoa: helburua da hondakin gutxiago sortzea, sortzen dena hobeto sailkatzea eta portzentaiak igotzea...

* Ibarra piparra sustatzen jarraituko dugu:

luz sortutako Piparraren Mahaia kudeatu, piparraren bidea sortu.

GAZTEENA AIPATU DUZU. ETA ADINEKOEI BEGIRA?

Esan bezala, adinekoekin ere oso sentsibilizaturik gaude eta diagnosi zehatz bat egin nahi dugu benetako errealitatea jakitearren, eta emaitza horiekin lanean hasi. Jakin badakigu 65 urtetik gorakoa dela Ibarra biztanleriaren % 25; errealitate ezberdinei begiratu behar diegu, aztertu eta, gero, ekin. Adibide batzuk jartzekotan, eguneko egoitza baten beharra aztertu, etxek etxeko laguntzak berraztertu, Bizi Nahi eraikina gaurko beharretara birmoldatu...

Bestalde, abian jarri zuten Ibarra Martxan proiektuarekin jarraitzeko asmoarekin gaude, emaitza oso positiboak ematen ari baita, gazteen eta helduen arteko komunikazioa ere lantzen du-eta.

HEZKUNTZA, EUSKARA... ALOR GARRANTZITSUAK DIRA.

Ikastolaren lana goraipatu nahiko nuke, Ibarra Ikastola herriko ikastetxe bakarra da eta lan bikaina ari da egiten. Hazi eta Hezi programarekin bat gatzoz, ahal dugun neurrian prest gaude oraingo bide beretik jarraitzeko, beraiekin elkar lanean.

Euskarari dagokionez, aipatu nahi nuke, besteak beste, erabilera datu kezkarrien ondoren herriko talde batek martxan jarri zuen Ibarra-barra euskaraz ekimena. Kultur ekitaldietan ere euskara ondo txertatuta dago, egin den lan onaren ondorio, jakina. Orain gutxi, bestalde, Galtzaundi Euskara Taldea ere herriratu zaigu eta hori albiste ona da. Elkarlana bilatu behar da eta laguntzeko hor izango gaituztela esan nahi diet.

LAU URTETARA NOLAKO IBARRA IKUSI NAHIKO ZENUKE?

Ibarra irekia, euskaldunagoa, gazteen errealitateari erantzun egokiak eman dizkiona, adineko aktiboak dituen, parte-hartzailea, feminista, abertzalea, irisgarritasun aldetik hobetua,...

«Continuaremos construyendo una Ibarra mejor»

Mi vida está muy unida a Ibarra desde muy joven y he participado en distintas entidades y organizaciones del municipio: la asociación de padres y madres de la ikastola y Haurreskola, la sociedad Sendi Ekintza, Hauspoa...

Es un reto atractivo, pero serio a la vez, que exige mucha responsabilidad; la intención es seguir construyendo un Ibarra mejor. La situación de Ibarra ha cambiado bastante en estas dos últimas legislaturas, debido a que se ha hecho una gran labor en varios ámbitos: la aprobación del nuevo Plan Urbanístico, el programa *Ibarra Martxan* para las personas de la tercera edad, Gazte-

zulo y los educadores y educadoras de calle que trabajan con la juventud o el protocolo de coordinación contra la violencia machista, son algunos de esos logros.

Nuestro trabajo irá en la misma orientación: con el nuevo Plan de Urbanismo se abren muchas posibilidades en cuanto a vivienda, aparcamientos...; continuaremos protegiendo el medioambiente y sensibilizando a la población para generar menos residuos y reciclar mejor; haremos sendos diagnósticos de la juventud y de la 3ª edad para posteriores actuaciones, colaboraremos con las agrupaciones deportivas; seguiremos con los proyectos que dieron comienzo hace un año

en torno a la difusión y promoción de la piparra de Ibarra (creación de la ruta de la piparra)...

En cuanto al euskara y la cultura, proseguiremos impulsando iniciativas como *Euskaraldia*, *Ibarra-barra euskaraz* para incrementar el uso del euskara y continuaremos colaborando con las sociedades y entidades culturales.

En resumen, trabajaremos por una Ibarra accesible, abierta, que responda a las necesidades de la juventud, con una tercera edad activa, gente participativa, feminista, abertzale....

Ibarrak behar dituen proposamenak

Etxebizitzaren arazoari eta gazteen beharrei heldu nahi diogu



- Etxebizitzak egin gazteak herrian geratzeko.
- Gazteentzako alokairuzko etxebizitzak sustatzen jarraitu.
- Pausoak eman aparkalekuak egiteko herri hasieran eta plaza inguruan.
- Bidegorria hobetu.
- Izaskungo frontoia egiteko eremu berria aztertu.
- Izaskungo bidearen lehen zatia zabaldu.
- Kiroldedia eraberritzen jarraitu.
- Udal eraikinetan energia berriztagarriak sartzen joan.
- Izaskungo frontoia egiteko eremu berria aztertu.
- Izaskungo bidearen lehen zatia zabaldu.
- Kiroldedia eraberritzen jarraitu.
- Udal eraikinetan energia berriztagarriak sartzen joan.

Vivienda y juventud

- Construir viviendas para que la juventud se quede en Ibarra.
- Continuar con la promoción de viviendas de alquiler para la juventud.
- Estudio para construir aparcamientos en la entrada del municipio y junto a la plaza.
- Mejora del bidegorri-carril bici.
- Estudio de una nueva ubicación para la construcción de un frontón en Izaskun.
- Ensanche del inicio del camino de Izaskun.
- Continuar con las obras de mejora del polideportivo.
- Incorporación del uso de energías renovables en los edificios municipales.

Parekidetasuna eta politika feminista txertatzea dugu helburu



- Herriko talde feministekin elkarlana sustatu.
- Parekidetasunaren aldeko talde irekia sortu: elkarrekin herriko beharrak aztertu eta maskulinitate hegemonikoaren pribilegioak identifikatuko ditugu. Horiek desagerrarazteko, mutil eta gizon taldeak sustatu eta maskulinitate tailerrak bultzatuko ditugu.
- 2. *Berdintasun Plana* egungo behar berrietara egokitu eta gauzatu.
- Berdintasun teknikariaren figura sendotuko da.
- Parekidetasunaren bidean pausoak ematen jarraitzeko baliabideak handituko dira.

Igualdad y política feminista

- Impulsaremos la colaboración entre los grupos feministas de Ibarra.
- Se creará un foro abierto de igualdad: analizaremos entre todos y todas las necesidades del municipio e identificaremos los privilegios hegemónicos de la masculinidad, y promoveremos grupos de hombres jóvenes y mayores, así como talleres sobre masculinidad.
- Actualizaremos e implantaremos el 2º Plan de Igualdad.
- Consolidaremos la figura de la técnica de Igualdad.
- Aumentaremos los recursos para avanzar en el camino a la igualdad.

Kultura eta euskara sustatzen jarraituko dugu



- *Ibarra-barra* euskaraz ekimena sendotu.
- Tolosaldeko Euskararen Mahaian parte hartu.
- Herriko kultur elkarteekin elkarlanarekin jarraitu eta dinamika indartu.
- Kultur eskaintza dibertsifikatu. Horretarako, areto baten beharra aztertu.
- *Mintzalaguna* antolatu.
- Merkataritzan eta lan munduan euskara sustatzeko ekintzak bideratu.
- Euskarazko komunikabideentzako diru-laguntzak ematen jarraitu.
- Euskararen kaleko erabilera neurtzen eta hobetzen jarraitu.

El euskara y nuestra cultura

- Reforzar la iniciativa *Ibarra-barra euskaraz*.
- Participar en la Mesa de Euskara de Tolosaldea.
- Colaborar con Galtzaundi Euskara Taldea.
- Continuar colaborando con los grupos culturales de Ibarra y reforzar la dinámica.
- Seguir con el programa Auzoko, con el objeto de acercar al euskara a la población migrante.
- Organizar *Mintzalaguna* para la práctica del euskara.
- Realizar de actividades de fomento del euskara en el sector comercial y laboral.
- Seguir subvencionando a los medios de comunicación en euskara.

Ibartarron bizitza erdigunean jartzea helburu



- Urari lotutako kanpo jolasak eta aisialdia sustatu.
- Gaztezulo zerbitzua bultzatu eta zabaltu, eskariaren arabera.
- Gazte-jendeari autonomia garatzen lagundu. Herriko eta Udaleko bitartekoak eskaini.
- Kirol jarduna bizitu. Kirol elkarteak babesteaz gain, beste kirol mota batzuk bultzatu.
- Merkatarien elkartearekin lankidetzan jarraitu.
- Zahartze aktiboa: *Ibarra Martxan*-en bidez herriko eragileen artean sortu diren harremanak estutzen jarraitu.
- Jubilatuak lokala gaur egungo beharretara egokitu.

La vida de las y los ibartarras en el centro

- Impulso de una educación de calidad, para que los niños y niñas crezcan y se eduquen en Ibarra.
- Estudiar, junto con la Udaltzaingoa, los puntos conflictivos, garantizar la seguridad del tráfico y de las personas...
- Asistencia a la juventud en el desarrollo de su autonomía; disponer los medios municipales y locales para ello.
- Envejecimiento activo: seguir reforzando la relación surgida mediante la iniciativa *Ibarra Martxan* entre los diversos agentes del municipio.
- Avivar la actividad deportiva, apoyar las asociaciones deportivas y promover otras modalidades deportivas.
- Mejora del servicio de recogida de residuos y del servicio de limpieza.



Zutik: Kristina Martinez Arnaiz • Agurtzane Arribillaga Uranga • Luis Lasa Muñagorri • Igor Zapirain Lizarribar • Maria Luisa Lizarza Salvarredi • Nagore Zubillaga Garmendia • Aitor Jimenez Iparraguirre

Eserita: Jesus Peñagarikano Labaka • Itziar Arratibel Imaz • Mikel Agirrezabala Ezkurdia • Unai Aizpuru Ibarluzea • Maider Aramendi Urteaga • Xabier Lasa Arteaga

Hemen dugu talde berria. Ilusio handiz ekingo diogu lanari. Ibarra hobetzen jarraitu nahi dugu, herritarren ongizatea eta bizi kalitatea bermatuz.

Zerrendak freskura berria dakar: gaztea baina esperientziaduna, parekidea, herriaren ezagutza handia duena, eta herriko bizitzan eta ekintzetan inplikazio handiko jendea (kultura, festak, ekitaldiak...).

Gure nahia herriarentzako lan egitea da, eta aurretik komentatu den filosofia eta proiektuak aurrera eramatea. Umiltasunez, baina gogo handiz, lanerako prest gaude eta, horretarako, herritarren laguntza eta parte-hartzea behar ditugu.

Hurrengo lau urteetan izango da zereginik. Proiektu ederrak aurreikusten dira, jendearen kezak eta iradokizunak jasotzen dituztenak. Hori horrela, horiei erantzuteko ere jendearen inplikazioa eta parte hartzea beharrezkoak ditugu, ahalik eta irtenbide egokienak emateko. Alegia, nahiz eta Udalean udal-talde bat egon, herritar guztien gobernua izan beharko luke gureak.

Denon artean, mila koloretako Ibarra bizi, parekide, jasangarri, solidario, euskaldun, parte-hartzaile, osasuntsu eta soziala eraiki behar dugu.

Frescura, experiencia e ilusión

Hemos formado un equipo con gente de distinto perfil, pero con un objetivo común: seguir trabajando en la mejora de Ibarra, garantizando el bienestar de la ciudadanía y su calidad de vida.

Intentaremos aportar aire fresco, contribuir con nuestra experiencia e ilusión a la hora de acometer los proyectos ilusionantes que hemos planteado junto con la ciudadanía, para así, entre todos y todas, seguir construyendo una Ibarra viva y activa en todos sus aspectos.

Nos esperan cuatro años de ilusión y nuevos proyectos; proyectos que verán la luz a través de la aportación y participación de la ciudadanía.



Juan Karlos Izagirre
Gipuzkoako foru hauteskundeetako zerrendaburua

«Aukera eta ahalmen handiko herrialdea da Gipuzkoa»

Horretarako guztirako, behar-beharrezkoa da gipuzkoar guztiak kontuan izango dituen Foru Aldundia izatea. Lehenengo eta bigarren mailako gipuzkoarrik gabekoa, inbertsioak eta zerbitzuak lurralde osoan orekatuko dituen.

Europako Parlamentua lanerako beste gune bat da EH Bildurentzat. Maiatzaren 26ko hauteskundeen ondoren hasiko den legealdi berriari begira hainbat helburu eta erronka ditugu esku artean: Euskal Herriaren aitortza internazionalaren aldeko lana; konponbidearen eta preso politikoen eskubideen aldeko egungo aliantzak sendotzea eta berriak sortzea; ezkerreko kideekin batera, EH Bilduren lan, ikuspegi eta borroka feminista indartzea Europan; eta gure herritarren aldarrikapenak eta beharrak Europara eramatea, Bruselaren eta Euskal Herriaren arteko zubi lana eginez, betiere, esparru guztietan herritar guztien eguneroko bizitza hobetzeko alternatibak eta eredurik aurrerakoienak defendatuz Europako Parlamentuan.



EUROPAKO HAUTESKUNDEAK

Orain Errepublikak
Ara Républiques
Agora Repúblicas
Ahora Repúblicas

«Europako Parlamentua, lanerako beste gune bat EH Bildurentzat»

Maiatzaren 26ko hauteskundeen ondoren hasiko den legealdi berriari begira hainbathelburu eta erronka ditugu esku artean: Euskal Herriaren aitortza internazionalaren aldeko lana; konponbidearen eta preso politikoen eskubideen aldeko egungo aliantzak sendotzea eta berriak sortzea; ezkerreko kideekin batera, EH Bilduren lan, ikuspegi eta borroka feminista indartzea Europan; eta gure herritarren aldarrikapenak eta beharrak Europara eramatea, Bruselaren eta Euskal Herriaren arteko zubi lana eginez, betiere, esparru guztietan herritar guztien eguneroko bizitza hobetzeko alternatibak eta eredurik aurrerakoienak defendatuz Europako Parlamentuan.

Orain
**ERr
EPu
Blik
ak**



UDAL HAUTESKUNDEAK
Elecciones municipales



FORU HAUTESKUNDEAK
Elecciones forales



EUROPAKO HAUTESKUNDEAK
Elecciones europeas

ehbildu

Mila esker Ibarra hobetzen lagundu diguzuen guztioi.

**MIKEL AGIRREZABALA EZKURDIA - ITZIAR ARRATIBEL
IMAZ JESUS PEÑAGARIKANO LABAKA - ARKATZ FRAILE
QUIJERA - MIKEL IGLESIAS OTEGI - IRATI OZAITA AZPIROZ**

2015 - 2019 legealdiko UDAL TALDEA

